

# ANDRE MARIA ZURIAREN JAIAK

**GARA**  
2015/8/4

Testuak: Aritz Maldonado

Argazkia: Raul BOGAJO | ARGAZKI PRESS



# «Ea posible den denon artean bestelako asto lasterketa bat adostea»

## GORKA URTARAN

### Gasteizko alkatea

Familiarekin zein lagunekin egoteko egun bikainak iruditzen zaizkio Andre Maria Zuriaren jaiak Gorka Urtaran alkateari. Ekitaldi publikoekin uztartzeko ahalegina egingo du alkate izanda biziko dituen lehenbiziko festa hauetan.



Argazkia: Juanan RUIZ | ARGAZKI PRESS

#### Lehenbiziko jaiak alkate legez, aldaketa handia espero duzu?

Pixka bat bai, baina orain arte zinegotzi bezala bizi izan ditut; beraz, ez dutuste. Aldaketarik handiena aita izateak ekarri zidan. Beste era batera bizi ditut jaiak

ordutik. Alkate naizenez, ekitaldi jakin batzuetara joan beharko dut, eta horrek eragiten du.

#### Parrandazalea zara?

Lehen gustatzen zitzaidan. Niretzat abuztuaren 4a ukiezina zen.

Lagunekin seietan elkartu, eta ilunabarrera arte bizitzen zena, oso berezia zen. Egun hori aprobatxatzea gustatzen zait, baina zinegotzi hasi nintzenetik ekitaldi publikoetan egon behar izan dut. Niri jaiak kalean bizi-

tza gustatzen zait, batez ere, Alde Zaharrean.

#### Zelan bizi dituzu Andre Maria Zuriaren jaiak?

Kalean sortzen den giroa gustatzen zait. 350 ekitalditik gora daude aurten, eta mota ezberdinakotara joatea gustatzen zait. Adibidez, pilota partidak ikustea gustuko dut. Aurten, abuztuaren 5ean edo 6an hurbiltzeko asmoa dut, eginbeharren arabera. Kontzertuei dagokienez, aurten Loquillo dator, eta ahal izanez gero ez dut galduko; aspalditik gustatzen zait, eta larunbata denez... kar-kar! Txosnagunean Zea Mays egongo da, eta horra joatea gustatuko litzaidake. «El nombre», antzokian, eta horra ere joan nahi dut; Parisen oso arrakastatsua izan da, eta itxura ona du. Ekitaldi publikoak familiarekin uztartzen saiatzen naiz. Ezberdina da, baina hori ere gustatzen zait. «Argiointzien prozesio» ekitaldira ere joan behar dut alkatea nainen aldetik, baina uste dut edozein gasteiztarri gustatuko litzaiokela. 5ean mezatara goaz, eta gero zortzikora; hunkigarria da zortzikoa. Zeledon txiki ikustera joango naiz, erraldoiekin ere arituko naiz, eta barraketara ere joango naiz. Haurrentzako egitaraua buruz dakit, kar-kar! Semeetako batek trikitia jotzen du, eta horren ikuskizuna ikustera joango gara. Nik uste dut denetarako denbora emango didala.

#### Txosnagunera hurbildu ohi zara?

Gutxienez egun batean zerbait hartu eta kontzerturen bat ikustea gustatzen zait. Txosnek beraien jaigunea sortzen dute eta horre giroa izaten da; ni giro guztieta hurbilten saiatzen naiz.

#### Blusen eta nesken kuadrillaren batekoa izan zara inoiz?

Ez naiz inoiz blusen eta nesken kuadrillakoa izan, baina horiek ere animatzen dituzte festak. Zati garrantzitsua dira, partaidezta aldetik batez ere.

#### Irailean asto lasterketekin zer egin erabakitzeko batuko zarete, ezta?

Printzipioz zer egin ikusiko dugu. Gizartearen zati bat ez dator bat lasterketa horiekin eta bertan behera utzi nahi ditu. Batzordera eramango dugu alternatiba bat posible den ikusteko. Guk alde guztien iritzia entzun nahi dugu. Ea posiblea den denon artean bestelako ekitaldi bat adostea. Hori da gure asmoa, eta hausnarketa bat ireki nahi dugu honen inguruan.

#### Eta zezenketekin gauza bera egitea posible ikusten duzu?

Horrekin ikusiko dugu. Printzipioz, posible da zezenketak egitea Gasteizen. Niri ez zaizkit gustatzen zezenketak. Abuztuaren 7an errekontadore txapelketa egingo da, hori ezberdina iruditzen zait. Ez diogu oztoporik jarriko zezenketak egiteari.

#### Gasteiztarrentzako mezurik jaei begira?

Oso egun bereziak dira guztiontzat. Dibertsio eta errespetuarren binomioa dago, eta biak uztar daitezke. Alde batetik, giro ona izan behar da, baina beste alde batetik, errespetuz jokatu behar da bai jaietan eta bai beti. Errespetua genero ikuspuntutik; errespetuzko harremanak behar dira gizonezko eta emakumezkoen artean. Bestetik, aniztasunaren aldetik errespetuz jokatu behar dugu; jende ezberdina dago, eta denok gara gasteitzarrak, eta aniztasun hori bermatu egin behar da. Bide batez, Zeledonen jaitsierarako errespetu handiagoa eskatu nahi nuke; ea lortzen dugun botila gutxiago sartzea, eta Zeledonek berak paseilloa erosu egin ahal izatea. Guztiontzako moduko eskaintza dago; beraz, ondo pasatzea gure esku dago.

**CONFECCIONES PINEDO**

*Era guztieta jaietarako jantziak*

San Antonio, 11 - GASTEIZ - Tel.: 945 23 39 90  
Heraclio Fournier, 15 - GASTEIZ - Tel.: 945 15 53 59



**BODEGON GORBEA**

**BOKATAK ROCK & ROLL**

C/ HERRERIA • GASTEIZ

# Unax Ugalde, voz y rostro del pregón festivo en nombre de las Artes Escénicas

**U**nax Ugalde, en calidad de representante del sector de las Artes Escénicas de Araba, ha sido el encargado de leer el pregón de inicio de las fiestas de La Blanca de este año. El propio actor se encargó de anunciar en las redes sociales que había recibido, «con gratitud», el honor de leer el pregón festivo de la ciudad que lo vio nacer. «El sector de las Artes Escénicas de Vitoria será el verdadero protagonista de este pregón, es un honor que cuenten con nosotros», resumió. En el acto del pasado domingo, además del famoso actor hubo una especial participación de representantes de la Academia de Folklore, con motivo de cumplir su 25 aniversario.

El actor gasteiztarra, nacido en 1978, es uno de los intérpretes vascos más populares, con una amplia carrera tanto en cine como en televisión. El alcalde, Gorka Urtaran, destacó la labor realizada por Unax Ugalde durante estos años. «Hemos querido poner en valor al sector de las artes escénicas de la ciudad por la labor que están haciendo en la difusión y el buen hacer de Gasteiz; dicha labor es valiosísima, y está en constante innovación», manifestó Urtaran.

El alcalde considera a Ugalde un excelente embajador para Gasteiz: «Es joven, euskaldun, artista de renombre, amante de la cultura y de nuestras fiestas, de las que disfruta siempre que

tiene oportunidad», destacó el máximo mandatario de la ciudad. A su juicio, el actor representa el perfil de gasteiztarra abierto, cosmopolita, profesional y amante de su ciudad.

#### EXTENSA TRAYECTORIA

El último papel destacado de Unax Ugalde en el cine ha sido el del abogado Iñigo Iruin en la película «Lasa eta Zabala». Este filme se estrenó en 2014, y se centra en el proceso judicial en torno a la desaparición y asesinato de los dos militantes vascos. La trayectoria de Ugalde es mucho más extensa, y ha obtenido numerosas nominaciones por sus trabajos en diferentes películas o series. En el cine, debutó en «Báilame El Agua», pero el primer papel importante le llegó con «Volverás», en 2002. Dos años más tarde protagonizó «Hector», película con la que recibió una candidatura a los Premios Goya por su lograda interpretación. También ha trabajado en películas de proyección internacional, como «Che, el argentino» o «Encontrarás Dragones». Antes de «Lasa eta Zabala», Ugalde también había grabado películas en euskara, concretamente «Bypass» y «Baztan».

En cuanto a su trabajo en televisión, participó en series como «A las once en Casa», «Cuéntame», «Periodistas» o «Gran Reserva». Además, Ugalde ha realizado dos cortos: el primero, «Jardines deshabitados», lo hizo con Pablo Mallo (director de «Lasa eta Zabala»), y el segundo fue «Tatuaje» (2003, Guillermo Ríos).



Unax Ugalde en una fotografía de archivo, en la que arropó a Gora Gasteiz. Juanan RUIZ | ARGAZKI PRESS

## La danza tradicional, del escenario a la calle

Además de Unax Ugalde, el pregón festivo también tuvo como protagonistas a los miembros de la Academia de Folklore, que ofrecieron una actuación preparada especialmente con motivo del 25 aniversario de su creación.

La Academia Municipal de Folklore de Gasteiz tiene casi un millar de alumnos, y gracias a ellos se da una nota de color a la ciudad. Desde sus inicios, Pedro Elosegi ha coordinado Musiketxea. Además de por la diferente manera de enseñanza que los ha caracterizado desde el principio, el segundo rasgo principal de la

Academia de Folklore es que sacaron la danza tradicional a la calle.

«La danza tradicional no era algo en lo que había que vestirse y bailar encima de un escenario para que el resto de los ciudadanos lo vieran; queríamos que los ciudadanos fueran partícipes en el baile, aunque no en todos, evidentemente, porque también hay bailes de corporación o de ritual que lo baila gente muy concreta», explicó en su día el propio Elosegi. De ese interés nació el programa «Dantza plazan», que aglutina a todas esas personas que quieren bailar y se animan a hacerlo.





Zerkabarren kalea (Cercas Bajas), 27. GASTEIZ · TI. 945 14 41 95



## Basatiak, 25 años de salvajismo cívico

Es una de las 25 cuadrillas de blusas y neskas, que reúnen en total a unas 3.500 personas

**L**as cuadrillas de blusas y neskas de Gasteiz son una parte importante de las fiestas de La Blanca, y los datos lo avalan: este año participarán alrededor de 3.500 personas, agrupadas en 25 cuadrillas. Además de cumplir con los rituales propios de la fiesta, también conservan un espíritu crítico, tal como se refleja en las pancartas que resumen lo acontecido en la capital alavesa durante el año. Una de esas cuadrillas, Basatiak, cumple ahora 25 años.

Las fiestas de La Virgen Blanca sacan a relucir el lado más rural de Gasteiz. Aun siendo una ciu-

dad que tuvo una importante migración a raíz del proceso de industrialización de la década de los años 60 (pasó de 50.000 habitantes a 240.000), en las fiestas de entonces y en las de ahora se mantiene ese espíritu rural, tal como lo atestiguan la historia de Zeledon o las romerías.

El mismo Zeledon, mito absoluto de las fiestas, representa al baserritarra del siglo XX con la blusa, abarkas y txapela típicos de su época. Las fiestas de La Blanca están llenas de elementos rurales, y por ello la manera de vivirlas es tan callejero, tan de estar al aire libre tanto con amigos como con vecinos o familiares. Y las cuadri-

llas de blusas y neskas son un claro ejemplo de vivir las fiestas de esa manera tan alavesa: adoptan el estilo de vida que llevaba Zeledon, con ese toque gambero tan característico de estas tierras.

Los blusas y neskas seguirán organizando sus actividades tradicionales, como el concurso gastronómico de Bereziak, las traineras, el Día del Limpio, la Fiesta de la espuma, deportes rurales, degustación de patatas con chorizo, lanzamiento de abarca, la gambada popular, el karting o el campeonato de bolo alavés.

Por otro lado, y muy unido a las cuadrillas, está la polémica

carrera de burros del Día de Santiago. El próximo mes de setiembre se reunirán representantes de las cuadrillas y de las asociaciones que defienden los derechos de los animales, con el Ayuntamiento, para tratar de buscar una alternativa que pueda ser aceptada por ambas sensibilidades.

### «NO TODO ES BEBER»

Las cuadrillas de blusas y neskas se caracterizan por vivir la fiesta intensamente, pero por mucho que a algunos les fastidie la parranda, no todo es comportamiento incívico en ella. La cuadrilla Basatiak hace labor de pedagogía desde que nació, hace 25 años. «Desde hace unos años se ha cambiado la junta de Basatiak, y ahora, con las nuevas generaciones, que son bastante jóvenes, se les enseña que no todo es beber», explican.

La cuadrilla Basatiak salió por primera vez hace un cuarto de siglo. Nació de la escisión de dos cuadrillas: Petralak y Txinpartak. «Había gente de una y gente de otra que se fue, y fundó una desde el principio», recuerda Dani, miembro de la cuadrilla. El actual traje viene precisamente de esa mezcla: blusa a cuadros y pañuelo a cuadros, los mismos que Petralak y Txin-

partak, el pantalón de arrantza de Petralak y la faja verde de Txinpartak.


En este cuarto de siglo, Basatiak ha pasado de ser un grupo de unos 50 miembros a tener una media de 220 blusas y neskas por día. «¡El día 5 llegamos a ser incluso 280!», precisan. En la actualidad, esta cuadrilla es una de las más numerosas. «Antes, incluso se celebraba el llegar a los 100», recuerdan.

### EL PASO A CUADRILLA MIXTA

En el año 2001 se dio un giro que marcó a la cuadrilla: después de muchos años, pasó a ser mixta. Los principios no fueron fáciles, ya que había una sola chica dentro de la cuadrilla, pero no por ello se dejó arrugar. Tres años más tarde, alguna otra se animó a formar parte de la familia más «salvaje» de las cuadrillas de Gasteiz. «A partir de animarse las primeras, todo fue mucho más fácil», constatan.

Como es habitual, Basatiak comienza el día 5 con la ofrenda floral, y alguno se anima a echar algún bertsot; después suelen acudir al Hospital de Santiago para llevar el pañuelo de fiestas y flores a los más mayores. El día 6, en cambio, es el turno de los más txikis: se monta «Basatilandia», con sus carreras de sa-





cos, bolos y otros juegos durante toda la mañana. Este año lo harán en la plaza de La Virgen Blanca. El día 7 acompañarán a Zeledon txiki y Neska txiki, y el día 8 intentarán mejorar el tercer puesto logrado en 1996 en el concurso gastronómico.

Como ejemplo de solidaridad que caracteriza al blusa y a la neska, Dani pone el ejemplo de Basatiak. El día 9 de agosto suelen ofrecer 3.000 raciones de patatas con chorizo, y el beneficio económico de esta actividad suele estar destinado al Banco de Alimentos de Araba. El año pasado entregaron un cheque por valor de 1.500 euros.

Además, en los últimos años también han realizado otros eventos solidarios y reivindi-

A pesar del nombre, los miembros de Basatiak son gente civilizada. En las dos imágenes de la izquierda aparecen disfrutando de las fiestas, bien formales, y la otra es la fotografía de familia del pasado año.  
FOTOGRAFIAS CEDIDAS POR BASATIAK

cativos. Así, el mismo día 9 fomentan el reciclaje; desde hace unos seis años, por ejemplo, compran un kilómetro de Korrika. «No solo entre nosotros, sino que también intentamos fomentar el uso del euskara entre los más jóvenes», añaden.

Los miembros de Basatiak no sólo se juntan durante las fiestas. A lo largo del año también suelen organizar una salida a una bodega y diversas salidas al monte los fines de semana. Desde hace unos años, Basatiak también ha empezado a acudir a las campas de Armentia en formato cuadrilla, con traje incluido, porque «ayuda mucho a la hora de animar y crear ambiente».

**Basatiak nació de la escisión de dos cuadrillas: Petralak y Txinpartak. La blusa, el pañuelo, el pantalón y la faja del actual traje festivo proceden precisamente de esa mezcla.**

## Hegotarrak: la diversión como objetivo

La cuadrilla de blusas y neskas Hegotarrak nació con un objetivo claro: «Pasárselo lo mejor posible», explica Javier Kerejazu, uno de sus miembros fundadores. La cuadrilla nació de la mano de miembros de otras cuadrillas con la intención de formar una sola cuadrilla de blusas y neskas de los barrios de Adurza y San Cristóbal. Tras un primer intento en 1994, un año después se juntaron 50 amigos y amigas, y de esta forma nació Hegotarrak.

Siguiendo la estela de cuadrillas mixtas como Karraxi, en Hegotarrak también hay blusas y neskas desde el principio. «La fiesta, si no es para todos, no es fiesta», argumentan.

Este año, con motivo de cumplir su 20 aniversario, el día 5 se juntarán personas que no salían desde hace varios años por diferentes motivos. «Queremos que sea algo especial», anuncian desde esta cuadrilla.

Además de La Blanca, los miembros de Hegotarrak suelen acudir el 25 de julio a la residencia Los Molinos, del barrio Adurza, y suelen participar en las fiestas del barrio y en el Olentzero, y algunos también cantan en Santa Agueda.

Este año se reunirán unos 200 miembros cada día, con edades desde los 20 hasta los 60 años, como en el caso de Kerejazu. «¡Que vengan a vernos, que seguro que se lo pasan bien!», anima este veterano.

# ETXEKOAK SL

**Su distribución ágil y cercana**  
Cervezas, Vinos-cavas, Aguas, Zumos...

Zuazobidea, 30 (Pol. Jundiz). GASTEIZ · T. 945 29 04 62 · 686 466 100 · F. 945 29 03 16 · etxeoaksl@gmail.com · www.etxeoaksl.com

ABIZTHAREN LÍNEA  
SEGUNERO PROGRAMAZIOA

<b>GASTEKO TXOSNAK</b> <small>Jaietan Herri Mugimenduarekin</small>	<b>GASTE ARTEA</b> <small>BIG BAND BERRI</small>	<b>XELO UENDETTA</b>
<b>ENTXOSNA TU!</b> <small>TXIMELETA INOREN ERO NI</small>	<b>JASTE AZKENA</b> <small>DONOSTIARDOAREN KONFERENTZIO EXKUTIBALDIA</small>	<b>TXIMELETA LAS TEA PARTY OT'S</b>
<b>GASTE GUNA</b> <small>LA PULGA ETA LAGUNAK</small>	<b>ETSIAIAK SU TA CAR</b> <small>OT TAPER</small>	

ABISMO hirnet DIAZ DE TECHE Diario berria®

**A.4****ASTEARTEA**

**18:00** Andre Maria Zuriaren plaza: jaietako hasiera emango dien Suziraren jaurtiketa eta Zeledonen jaitsiera.  
**19:00-21:30** Florida parkea: Yatagán orkestra.  
**20:30** Aihotz plaza: Larrain Dantza eta Txulalai, Udal Folklore Akademiako gaita-jotzaileekin.  
**22:00** Francisco Juan Aiala plaza: Azoka Arabiarra.  
**22:30** Principal antzokia: "Buena gente".  
**23:30** Olagibel kalea: Zezensuzkoak.  
**00:00** Foru plaza: Green Valley. Arka plaza: Koxkor. Txosnak: Xeici.  
**00:30** Espania plaza: La Mundial Orkestra.  
**02:00** Txosnak: Vendetta.

**A.5****ASTEAZKENA**

**9:00-14:00** Andre Maria Zuriaren irudia dagoen plazatxoan: Lore eskaintza eta ohorezko aurreeskua Andre Maria Zuriari.  
**9:00-22:00** Erdialdea: Idiek tiratutako gurdia.  
**11:30** San Migelko eskailera: Buruhandien konpartsaren dantzaldia.  
**11:30-13:30** Prado parkea. Abentura gunea haur eta gazteentzat.  
**11:30-15:00** Loma Jeneralaren plaza. Gastronomia eta Eskulangintza Azoka.  
**12:00** Espania plaza. Gasteizko zortzikoa. Foru plaza: Herri kirolen Andre Maria Zuria txapelketa.  
**13:00** Olagibel kalea: Zezensuzkoak.  
**14:00** Foru plaza: Los Secretos. Arka plaza: Drindots. Aihotz plaza: Oreka TX + Kalakan.  
**15:00** Espania plaza: Taxxara orkestra.  
**16:00** Txosnak: Tximeleta.

# FESTETAKO EGITARAUUA

**13:00** Florida parkea: Udal Musika Banda.  
**13:00** Espania plaza: Ikurrinaren omenaldia.  
**13:30** Aihotz plaza: Berto-saioa (Maialen Lujanbio eta Manex Agirre).  
**19:00** Falerina lorategia: Libe.  
**19:00-21:30** Florida parkea: Custom orkestra.  
**20:30** Falerina lorategia: Storm Clouds Rock Band. Aihotz plaza: Larrain Dantza eta Txulalai.  
**23:30** Mendizabala (ferialekuaren ondoan): Gasteizko Piroteknia Iuskizunen Nazioarteko XIII. Erakustaldia. Probintzia plaza: Luis Mariano entre amigos.  
**23:30** Olagibel kalea: Zezensuzkoak.

**00:00** Foru plaza: Los Secretos. Arka plaza: Drindots. Aihotz plaza: Oreka TX + Kalakan.  
**00:30** Espania plaza: Taxxara orkestra.  
**01:00** Txosnak: Tximeleta.

**A.6****OSTEGUNA**

**10:30** Zezen plaza: Bigantxak.  
**11:30-15:00** Loma Jeneralaren plaza: Gastronomia eta Eskulangintza Azoka.  
**12:00** Foru plaza: Herri kirolen Andre Maria Zuria torneoan. Andre Maria Zuriaren plaza: Abarka jaurtiketaren txapelketa, XI. Edizioa.

**12:30** Santa Maria Katedralaren ataria: Ganbera musika. Aihotz plaza: Trikitixa.  
**13:00** Florida parkea: Udal Musika Banda  
**13:30** Aihotz plaza: Berto-saioa (Iratzi Anda, Asier Rubio, Jone Uria eta Sustrai Colina).  
**19:00** Falerina lorategia: Kapland.  
**19:00-21:30** Florida parkea: Kaoba orkestra.  
**19:30** Aihotz plaza: Parradust.  
**20:30** Falerina lorategia: The Retrievers.  
**23:00** Probintzia plaza: El Show de La Polaca.  
**23:30** Olagibel kalea: Zezensuzkoak.  
**00:00** Foru plaza: ETS eta Hesian. Aihotz plaza: Tadusak. Txosnak: Su Ta Gar.

**00:00-03:00** Arka plaza: Joselu Anaiak.  
**00:30** Espania plaza: Tal Kual Band orkestra.  
**00:30-03:00** San Frantzisko aldaera: Whisky Dyk taldea eta Dj Mike.  
**02:00** Txosnak: Etsaiak

**A.7****OSTIRALA**

**09:00-15:00** Bastituru kalea: Ganba-jan herrikoia.  
**10:30** Zezen plaza: Bigantxak.  
**11:00** San Miguel eliza: Lore eskaintza eta ohorezko aurreeskua, Zeledon Txiki eta Neska Txiki bertan izango direlarik. Prado kalea: Karting Zoroak. Arka plaza: III. elkartasunezko pintxo-potea.

**12:00** Foru plaza: Herri kirolen Andre Maria Zuria torneoan.  
**12:00-13:00** Artumen aurreko plaza: Urdaiazpikodastatzea.  
**13:30** Aihotz plaza. Berto-saioa (Oier Arbina, Orlando Arreitunandia, Maddalen Arzallus eta Fredi Paia).  
**18:00** Zezen plaza: "Gasteizko Hiria" errekontadore lehiaketa handia, zezenekin.  
**19:00** Falerina lorategia: Pow Pow Pows.  
**19:00-21:30** Florida parkea: Azabache orkestra.  
**19:30** Aihotz plaza. Aiko.  
**20:30** Falerina lorategia: Sumision City Blues.  
**00:00** Foru plaza: Carlos Jean. Aihotz plaza: Xaiko Arka plaza: Honat. Txosnak: Indarrap.  
**00:30** Espania plaza: Diamante Show orkestra.  
**02:00** Txosnak: Kodigo Norte.

**A.8****LARUNBATA**

**10:00** Espania plaza: XXII. Sukaldaritzako lehiaketa eta taldeentzako "Hiriburu Gastronomiko" pintxo lehiaketa.  
**10:30** Iradier Arena. Zezen plaza. Bigantxak.  
**12:00** Foru plaza: Herri kirolen Andre Maria Zuria torneoan.  
**13:00-15:00** San Frantzisko aldaera: Pankarta erakusketa, eta sagardoan egindako txorizo dastatzea.  
**13:30** Aihotz plaza: Berto-saioa (Xabi Igoa, Peru Abarregui, Iñigo Manzisidor eta Igor Elortza).  
**17:30-20:00** Probintzia plaza: Haurrentzako Herri Kirolak.  
**18:00-20:00** Foru plaza: Blusa eta nesken taldeentzako arabar erako

bola-jokoko II. txapelketaren finala.  
**19:00** Falerina lorategia: Arenna.  
**19:00-21:30** Florida parkea: Tropicana Son orkestra.  
**19:30** Aihotz plaza. Goi-Alde Dantza Taldea.  
**20:30** Falerina lorategia: Los Carniceros del Norte.  
**00:00** Foru plaza: Loquillo. Aihotz plaza: Juanjo Skalar & La Rude Band. Plaza del Arca: Lisker. Txosnak: Iheskide. Falerina lorategia: Los Webotwes eta Rock Shock.  
**00:30** Espania plaza: Esmeralda on Tour orkestra.  
**02:00** Txosnak: Zarpazo.  
**02:30** San Prudentzio kalea: Txorizoa dastatzea.


**A.9****IGANDEA**

**12:00** Foru plaza: Herri kirolen Andre Maria Zuria torneoan.  
**13:30** Aihotz plaza: Berto-saioa (Ruben Sanchez, Felipe Zelaieta, Oihana Bartra eta Julio Soto).  
**19:00** Foru plaza: txerri errearen pintxoak.  
**19:00-21:30** Florida parkea: Iceberg orkestra.  
**23:00** Probintzia plaza: La Década Prodigiosa.  
**23:00-03:30** Espania plaza: Vulcano Show orkestra. 01:00 Andre Maria Zuria plaza: Zeledon agurra. Txosnak: Zea Mays.  
**01:15** Andre Maria Zuriaaren irudia dagoen plazatxoan: Jain amaiera.  
**02:30** San Prudentzio kalea: txokolatea eta bizkotxoak dastatzea.

**Gure lurraldetik**

## KLIMA ALDAKETARI

aurre egiteko konpromisoa



**KLIMA 2050**  
BASQUE COUNTRY

EUSKO JAURLARITZA  
GOBIERNO VASCO

# Unibertsitateko txosnagunea, jai eremu askea

**B**este urte batez, Gasteizko herri mugimenduko eragile eta talde ezberdinek festetan beraiekin batera «entxosnatze» deia egin dute. Gasteizko jaiak kalean bizi dira, gehienbat, eta hiriko hamaika gunetan, gainera. Duela urte batzuetatik hona, jai gune alternatibo bezala ezarrri da unibertsitate guneko txosnagunea.

Andre Maria Zuriaren egitarau ofizialetik kanpo ere, eskauntzarik badela erakusten du gune honek, eta 4tik 9rako tartean, makina bat ekitaldi eskainiko dira bertan. Gaur irekiko dituzte ateak txosna eta karpek, lehenbiziko potea, baina, ez da zerbitzatuko Aiotz plazatik abiatuko den kalejira iritsi arte.

Aurtengo nobedade nagusia, unibertsitateko gunean jartzen den karpa handian egongo da. Bertan Herri Denda jarriko da, eta kolektiboen materiala erosia ahalko da. Txosnagunea osatzen duten kolektiboek ez dute diru laguntzarik izaten; hori dela eta, urte osoan zehar ekitaldiak antolatzeko zein jaietarako egitaraua prestatu ahal izateko, horrelako ekimenak dira beharrezko diru iturria.

#### EGITARAU OPAROA

Ez da meritu makala horrelako gune askeetan, laguntzarik gabe egiten diren eskauntzak egitea. Kontzertuen aldetik, puntako taldeak aritu izan dira beti Gasteizko txosnaguneko taula gaineran, eta aurten ere hala izango da. Gaur, adibidez, Vendetta nafarrak arituko dira Xeic! eta Big Band Berriarekin batera. Bihar, preso eta iheslarien egunean, berriz, Inoren Ero Ni, eta Tximelleta izango dira protagonistak. Gaua iristean, Las Tea Party DJ's sona handiko bikoteak dantzan jarriko ditu bertaratutakoak, Euskal Herriko beste hamaika jaietan egin duten bezala.



Gasteizko txosnagunea, iazko jaeten. Aurten, kide berri bat gehitu da: «Ateneo» aldizkaria txosna jarriko du lehenbizikoz. Juanan RUIZ | ARGAZKI PRESS

Ostegunean, ikasle eguna izango da. «La pulga eta lagunak» delako ikuskizuna izango da arratsaldean. Gauean, berriz, Etsaiak eta Su ta Gar talde klasekoek beraien ereserki andana botako dute taula gainetik. Osti-

ralean, berriz, Gazte Eguna izango da; kaleko doinuen txanda izango da abuztuaren 7koan. Indarrap, Kodigo Norte arituko dira rapeatzen. Gauari amaiera emateko, DJ Loro eta Selektak Stepi arituko dira musika jartzen.

## Falta direnak gogoan

Festetako egunak kuadrilla eta familia artean igarotzeoak izan ohi dira. Falta diren preso eta iheslariak gogoratzeko horien aldeko eguna ospatuko dute txosnagunean. Abuztuaren 5ean izango da hori. Aldarrikapena hiriburu osora zabalduko da egunean zehar eta, gaueko 21:30ean, dispersioaren kontrako ekitaldia egingo da.

Gasteizko Sare euskal presoen eskubideen defentsan lanean ari da

azken hilabeteetan. Hamaika ekimen egin dituzte: ekainaren 28an gaixorik dauden presoen etxeratzea eskatzeko ekitaldia egin zen; tartean, Jose Ramon Lopez de Abetxuko arabarra libre uzteko eskatu zen; izan ere, bihotzeko eritasuna du preso gasteitzarrak. Bestalde, gogora ekarri zuten presoen senide eta lagunek, batez beste, 400 kilometroko joan-etorriak egin behar dituztela.



Iazko txupinazoaren irudia. Juanan RUIZ | ARGAZKI PRESS

**LIZARRALDE  
SOINUA  
TXALAPARRA S.L.**

SOINU PROFESIONALA  
MEGAFONIA

Tel. / Fax: 945 226 977 · txala@txala.euskalnet.net  
01012 GASTEIZ

Ondo pasa jaietan!



Ondo pasa jaietan!

Larunbatean desobedienteen alde batuko dira musikariak. Azido Folkloriko arduratuko da arratsaldea irekitzeaz, eta ondoren, gazteen artean arrakasta itzela duten bi talde arituko dira, Iheskideren punk rock borrokalaria eta Zarpazo a Cicatriz taldearen abesti mitikoa entzun ahalko dira.

Igandean, aurtengo jaiak bukatzen, Joseba B Lenoir Gang eta Zea Mays arituko dira taula gainean.

#### GUNE IREKIA

Urte osoan zehar esparru anitzetan lan egiten duten kolektibo eta eragileek bat egiten dute jai eredu herrikoian oinarritutako espazio bat eraikitzeko.

Gasteizko txosna batzordea hamaika eragilek osatzen dute; adin tarte, zein pentsaera ezberdinakoak dira talde hauetako kideak, eta txosnagunera hurbiltzen direnen artean ere ikus daiteke aniztasun hori.

Gaur hasiko diren festa hauetan kide berri bat gehitu zaio txosnaguneari. «Ateneo» aldizkaria txosna jarriko du lehenbizikoz.

Besteak beste, Gasteiz 2011, Dispertsioaren Kontrako Txosna, Gazteak, Iraulta 1921, AEK, Euskal Herrian Euskaraz, Berriozale Elkarte, Askapena eta Fracking Ez kolektiboek osatzen dute aurtengo Gasteizko txosnagunea.

# «Zuzenean ikusi gaituen jendeak denboran atzera bidaiatu duela esaten digu»



Argazkia: ZARPAZO

## Nola sortu zen hau?

Ideia Gaizkari bururatu zitzzion, iazko uda inguruan. Bere anaia, eta Cicatriz omentzeko gogoa zuen, eta Andoniri (beste gitarra) komentatu zion. Taldea osatzeko niri deitu zidaten, eta nik Porrasi eta Igorri deitu nien.

## Eta izena?

Nik pentsatu nuen. Cicatrizen antza hartzen nion, eta atzapar-kadek orbainak uzten dituzte... Izen indartsua iruditu zi-tzaigun.

## Zer suposatzen du zuretzat, Nathonren anaia izanda?

Niretzat ohore bat da. Nire anaia-ren jarraitzailea naiz, noski, eta bere eta Cicatrizen ibilbidea txikitik jarraitu dut. Gainontzeko kideak ere zaleak zirela bane-kien, eta horregatik deitu nien. Guretzat ohore bat da.

## Eta ez duzu presiorik igartzen?

## GAIZKA ETXEBARRIETA

### Zarpazo a Cicatriz taldeko abeslaria

Cicatriz talde gasteiztar mitikoaren omenez jaio zen Zarpazo a Cicatriz taldea. Nacho abeslari zenduaren anaia Gaizka Etxebarrieta mikrofonoa hartu, eta bere lagun Andoni (guitarra), Santi (guitarra), Porras (baxua) eta Igorrekin (batería) batera, talde mitikoa omentzen arituko dira datozen urte eta erdian.

Presioa bai, baina kontzertuak egin ahala, gutxituz doa, ikusle-en erantzuna oso ona izaten ari delako. Egiten dugunarekin gus-tura geratzen ari da jendea. Gu-reztat handiak izan ziren, horregatik presioa dugu, baina aldi berean, motibazio handiagoa dugu. Oso onak izan arren, hasiera-tik izan dugu argi inoiz ez garela

Cicatriz izango, eta, egia esan, inoiz ez da hori izan gure asmoa.

#### Iraungitze datarekin jaio da proiektua...

Esan bezala, hau omenaldi bat da, ez tributo talde bat. Cicatriz omentzeko jaio ginen, Espania inguruan entzun dezaten, gazte-ek ere entzun dezaten, eta kito.

Ez dugu Cicatrizen abestiekin gure ogibidea egin nahi, omenaldi bat baino ez da hau, eta beraientatik egiten dugu.

#### Kontzertuek harrera ona, beraz?

Bai, egia esan, ez genuen uste hain harrera ona izango zenik. Agurainen egin genuen lehenbizi-koa, eta oso gustura; berez, le-

hengoa zenez lagunartekoia izan behar zuen, baina ahoz ahokoak funtzionatu zuen, eta lehertzear zegoen tokia. Hor ikusi genuen harrera ona izango zela, eta giroa bikaina da ordutik.

## Jarraitzaile zaharrenek zer esan dizuete?

Gasteizko Jimmy Jazz aretoko kontzertura gasteiztar asko hurbildu ziren, jende zaharragoa, nire anaiaaren lagunak, nire ama (bera guztieta etortzen da), eta mundu guztiak flipatu egin zuela esan zigun. Jendeak dioenez, antz handia dugu, eta guri esker denboran atzera egitera lortu zutela esan ziguten. Gazteenek esatea eskertzen da, baina zaharragoek ere berdina esatea ezberdina da.

## Eta hemendik aurrera, zer?

Orain artean lau kontzertu eskaini ditugu. Gu prest gaude datorrenerako. Hasieran ez genuen uste horrela izango zenik, baina orain jada erabakita dugu, urte eta erdi hau topera egingo dugu. Adibidez, Eskorbutoren omenaldian egon eta gero, Eibarre joan ginen.

## Zuek ere denboran atzera egingo duzue, ezta?

Nik nire anaia askotan gogoratzen dut, eta abesterakoan ere bera gogoan dudala egiten dut; berak nola egingo lukeen pentsatzen dut. Horrez gain, amarekin eta ingurukoekin egiten denez, bizitakoa, anaiazen oroitzapenak datozkit burura abestean.

## Nola egin duzue abestien auke-raketa?

Guztiak dira ezagunak eta gogorra egin zaigu. Guretzat lanik esanguratsuena "Inadaptados" da, eta bertako gehienak jotzen ditugu; beharbada, osorik joko dugu biraren amaieran. "4,2,1"-tik sei eta "Colgado Por Ti"-ko pare bat. Ordu eta erdian jotzen dugu. Jendeari guztiak gustatzen zaizkio, baina ezin ditugu denak jo; kontzertuak ezberdinak dira.

## Gasteizko txosnetan kontzertua eskainiko duzue; zerbait berezia prestatu duzue?

Gasteizko txosnetan zerbait berezia egingo dugu, gure hiria delako. Sorpresak egongo dira.

## Ez zaizue deigarria egiten hain-bestе urte eta gero Cicatrizek hainbeste jarraitzaile izatea?

Cicatriz betikoa izango da, ez da ahaztuko. Jimmy Jazzeko kontzertuan, esan bezala, sarrerak agortu genituen eta belaunaldi nahasketa izugarria zen. Teknikariak ere esan zigun, aspaldi ez zuela horrelako girorik sumatu. Oso talde karismatikoa izan da beti, eta nik uste diskoak salduko dituztela oraindik ere!